

# Idazleen Alkartea (2)

Juan San Martin-i egin nahi izan dizkiot galdere hauek. Berak proposatu zuan Alkartea hau sortzea, nik dakidan ez lehenengo, Ermuko Jardunaldi gogoangarri hiletan. Bideko zua berari galdetza. Orain beste batzuk daramakite aurrera asmo hori.

Juan San Martin nork ez du ezagutzen? Euskaltzaindiaren sekretario da. Oso langilea.

—«Idazleen Alkartea» hau komeni da ala ez, eta zertarako?

—Idazleen Alkartea bat?, dudu gabe. Alkaren anparuen idazleen interesak defenditzeko, alkar ezagutzeko, alkarren hartemanetan giro bat egiteko eta literaturan landu behar diren gaiak eratzeko, eta gaurko gaiak zein diren erabakitze... Alkartasun bat oso komenigarri ikusten dut. Hitz batean, idazleek elkarrekin eta prolema guziki alkartasun planifikatu ahal izateko.

—Alkarrizketa honek ze gaitzango luke Alkartea hontan?

—Era askotakoa. Elkarrizketak argia ematen du, esate baterako, gaurko joerak zein diren ikusteko. Sali bakoitzean, teknikak differenteak dira, kasurako poesia eta teatroa egiteko erak. Baina tematika ez da aldatzen, munduak planteatzen du hori garai bakoitzean. Eta bakoitzak heldu behar dio momentuko galari.

Honek ez du esan nahi folklorelanak eta nobela historikoak ezin dituztenik egin. Hori ere egiteko dago, eta biltzeko. Historia-tekstetan nobela historikoa ba da, eta herrian herri-literatura ba da; edo dauden bildumari beste orientazio bat eman. Literatura aldetik jantziago egin... Etabar.

—Hori dana ondo dago, eta beharrezko da. Baina ba al dago zerbait zuk preminazkoango ikusten duzuna?

—Beharrezkoena: gaurko prolematikari oratuta sorkunde batera joatea, geure norasuna hartuko duan literatura-era batera joatea. Zerbait hori lortu dute katalanek, hango poesiak, nobelak, teatroak ba du izen bat, bereizkizun bat. Guk ez. Esan lizeke, pixkat baino gehiago poesian.

—Alkartea honen helburua zein da? Herriari begira lan egitea, ezta?

—Bai, eta hortarako, nobela labur eta errexak (bestalde mundurik kultuenean egiten direnak) behar ditugu; goragoko maila ere landu behar dugu, itzal bat eta erresponsabilidate bat idazleari emateko; salakerak etabar; onak diranean traduzituko litzekete, eta orduan prestigioa da ondorena. Alkartea onak bide preminazkoenak ikusten salatu beharko du; kultura, esate baterako. Eskoletako testuak ere. Behar ditugu ikasteko testuak, geometria, jeografia... gorango mailataraino. Eskolek esan behar dute zer behar duten, eta orduan Idazleen Alkartea esango du zein dagoen hortarako gertuen, eta horren lanak, espezialitate bakoitzean, «cuerpo redactor» baten orraziapenak hartuko ditu. Beraz, lan hauek, ondo egingo badira, ekitz egin beharrezkoak dira, zer hobe proposatzen dugun Alkartea egitea baino?

—Oinarriak zein dira?

—Bi jarriko nituzke nik, bi minimum: bata idaz-neurriena, eta batasun-arazuna bestea. Alkartea horren hibe izateko idazlanetan minimum bat behar da. Ba da Europako Idazleen Alkartea bat. Etxea, uste dut Italian dela. Honek esaten dute literatura-liburu baten egite izatea. Gaurko nik eskatuko nuke liburu bat, edo teatro bat, edo salakerak, edo periodismuz sakabanaturik egindako lana, ehun bat (edo berrehun, berdin da) folio gutxiarik. Eta geroago sartuko diranentzat kondizioak sartuzkoak izanen dira: hor sartuko diran guzian kriterioak sortzen daan eskeria motara behartu.

Bigarren oinarriari buruz, batasuna beharrezkoa da. Ortografian, gutxiarik, bestela alferrik gabilta. Ortografiak, letra batek, ez du hizkuntza kanblatzen. Komeni dana da, denok berdin joatea; edo ezkerretik edo eskubetik. Luis Mitxelenak Arantzazum esan zuana: autoak ezkerretik ala eskubetik joan ditzezala berdin da, baina doazela denak berdinetik. Guk ere bat aukeratu behar dugu. Bat hori, zein? Idazleen Alkartea, Arantzazum errekomendaturikoa behartu egin behar du. Euskaltzaindiak ezin du

behartu berak ez du literatura egiten-eta. Asmoetako Alkartea honek bai.

—Planteamendu sakonago bat. Asmoetako Alkartea hau Euskaltzaindiak bere eginbeharra betetzen ez dualako ala eginkizun aparteko eta definitu batekin al dator?

—Nik uste, lehenengo honen beharra idazleak alkartzea. Euskaltzaindiak ba dira idazleak ez diranak eta baita idazte izanik Euskaltzaindiatik kanpora daudenak ere. Gainera, ez Euskaltzaindiari eta gutxiago enkerari, ez zate komeni hizkuntzarekiko guzia Euskaltzaindiarekin, diodanek. Baina norasuna gorde ere bat: literaturaren batasun-arazoan, esate baterako. Euskaltzaindiak makal arkitzen da, batasunerako ez badu aski funtsa, idazleek ikusi behar dute, beren aldetik, ea posible duten harutzago joatea. Batasuna, nik, espero dut idazleengandik, irakasleengandik baino lehenago.

—Araozak ikutuz-aztertuz goaz. Azter dezagun orain beste bat. Zure «Escritores euskéricos» liburuan lan inedito asko agertzen da. Idazlea, edozein dela, bere lana argitaratu gabe ikustean, etsipenean herortzen da, eta gutxienez ahuldu eta moteldu egiten da. Gure artean nise egiztat udituekan akatsa. Zergatik gertatzen da hau? Nik uste, argitaldarien planteamendu oker bategatik. Horregatik galdetzen dut ea ez ote litzakean komeni Idazleen Alkartea honek editorial bat sortzea edo editorialean kooperatiba bat egitea edo editorialean kontrola eramatea, idazlearen promozioari eta eskubideari dago-kionez. Mingarria izango litzake...? Baina, bestalde, oso inportante da idazleak bateratuta egotea eta montaje batean, sistema publizitario ta propaganda batean haturik egotea, ez argitaldari bati eman lana, eta zuk ikusi esanez, nahi duzuna egin esanez. Idazleen Alkartea bertako idazlearen obra ez bakarrik saldu balez aurrera ateratzeko lan egin behar luke, ezta, Juanito?

—Bai noski, noia ez. Behin Alkarteari estruktura jarriaz gero. Eta gero egiteko litzake «cuerpo redactor» eta selezio bat eginaz bateratze bat, hauek esan dezatela



Juan San Martin Euskaltzaindiko Billera nagusi batean, elkarte ontako buruzagi dan Lekuona jaunarekin.

zenbateraino baliatu eta indartu behar dituen egite baten lana.

—Idazlearen promozioa egiteko biderik onena litzake hau.

—Duda gabe, Promozio hori oso ki egiteko lan txar batzuk argitaratu beharko dira. Baina idazle horren 15-gn. obra hobetago izango da. Eta orduan obra hori ateratzen editorial komertzialak arduratuko dira. José Plé-rekin Katalunian hain zuzen hori gertatu da, bere «Obras completas» egiten ari dira, Katalunia txikia dela hainbeste nobela ateratzeko, nahitza gu baino gehiago izan.

—Alkartea honek sindikato-erara jokatu behar duala entzun dizut behin baino gehiagotan. Zer adierazi nahi duzu honekin?

—Hau izango da Alkartea horren beste eginkizunetarikoa bat. Sindikato-erara batez ere interes profesional defenditzean eskatzen du %-etik 10-3, gutxiarik, kobratu behar du egileak. Hemengo editorialek ez dute ematen. Euskaltzaindiak ez daki tutik ere. Sakrifika-tzen dana idazlea da betiere, liburuak merkeago saltea egilearen deretxetarik hartzen dalako. Eta Alkartea eskatu behar duana da: edo liburuak ez da ateratzen edo kostatzen dana kostata atera de-dila, ez merkeago jartzearren idazle-ari dirua kenduz.

Beste fenomeno bat desterratzeko ere lan egin behar du Alkartea honek sindikato-eran: ba danda idazle onk ala ez, baina dirudunak. Argitaldarak esaten du eskal-libururak ez duala negoziarrik, eta orduan egileak arretaritzen du dirua, beharbada gero jasotzeko (edo ez). Ez dago eskubiderik, beste lan asko argitaratu gabe gertatzen dira, beharbada askoz hobek, nork diru eman ez dagoelako. Eta harpidetunak pagatu behar du. Horrek euskal literaturari bide txar bat eman dio. Eta orduan Alkartea honek esiltu egin behar du %-eko 10 hori, eta ezkonideratu hori esiltzen ez duan autore, eta neurri batean eskiltotzat hartu. Alkartea jarritako oinarriak betetzen ez dituzalako. Beste autore batzuen interesak zapaltzen ditu-eta. Baina berdin aldirkarren aurrean, batez ere komertzialki eraturik dauden artean. Hau da, harpidetza edo salbenta egokial eta amuntzioak dituztenei, artikuluko edo, horriko honen besteko bat hautatuz. Hau bait da lan gehiago eta hobek egiteko bidea, zeren argitaratzen diran lanak ordaintzera, lanak, argitaratzeko, neurri on bat beharko du, eta idazlea hobeto idaztera bultzatzen duan neurrian, irakurleak gehitzera behartuko ditu, eta luzarora aldirkari berentzat ez ongarri izango da, baina batez ere euskal literaturarentzat.

—Honekin aski dugu, Juanito. Milesker. Alkartearen asmo hori oso aurreratua dingo, en gauzatua noiz ikus dezakegun.

Joan Mari TORREALDAY

Euskaltzaindiko billera baten ondoren, euskal idazle talde bat alkarizketan.